

# Aretxagazeta

Internet: [www.saretxo.es](http://www.saretxo.es) / [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabalota • 1999ko urtarrilak 28 • 160. zk.

## Pezetatik europa

Atzerako kontaketa hasi da

Iturririk iturri: Juan Antonio Rodriguez ■ Iritzia: Josu Urkia ■ Kirolak: Jokin Romero



# HEZIBIDIEren aldeko jokoa errenta segurua



## BILERA INFORMATIBOAK:

- **Haur Hezkuntza:**  
San Frantzisko Xabier, Almen, San Viator eta Umezaintza: 99-II-11, Monterronen
- **Lehen Hezkuntza (L.H.):**  
San Frantzisko Xabier: 99-I-28  
Almen: 99-II-2  
San Viator: 99-II-9
- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H.):**  
San Frantzisko Xabier: 99-II-10  
Almen: 99-II-4  
San Viator: 99-II-3




SAN VIATOR  
IKASTOLA



Umezaintza  
HAUR-ESKOLA



SAN FRANTZISKO XABIER  
IKASTOLA



ALMEN  
IKASTOLA



HEZIBIDE  
HEZKUNTZA TALDEA

## ARRASATEKO BULEGOA:

Biteri Etorbidea, 15 beheka  
Tel: 943 79 88 75  
20500 ARRASATE  
GIPUZKOA



HEZIBIDE  
HEZKUNTZA TALDEA





# Koherentea da insumisioa aldarrikatu eta Santa Ageda ospatzen jarraitzea?




**Eli Pérez**  
(Langilea)

Bai, antzinako jaia da eta jarraitu egin beharko litzatekela ospatzen uste dut, baina neskek ere parte hartuz noski.



**Pedro Morales**  
(Jubilatua)

Tradizioa bada zergatik ez jarraitu ospatzen? Insumiso izatea gaurko gazteen kontua da. Neskek ere parte har dezaketen edo ez gazteok erabaki beharko duzue.



**Andoni García**  
(Ikaslea eta langilea)

Niri ongi iruditzen zait jaia ospatzen jarraitzea, gaurko mutilak insumiso izateak ez dut uste zerikusirik duenik. Neskek parte hartzea edo ez berdin zait.



**Piedad Román**  
(Langilea)

Aurten iloba bat dut santa ageda mutil eta oso ilusionaturik dabil, beraz, zalan-zarik gabe ospatzen jarraitu beharko litzateke, tradizio kontua delako. Neskek ere parte hartu beharko lukete beraiek ere kintoak baitira.



e s k u t i t z a



## egin zutelako, dugulako eta egingo dutelako, gara!

Apostua egina zegoen, "1000 milioi baietz". Hori lortzeko Euskal Herri osoko herrietatik tanttaka-tanttaka itsasoratu behar zuen askatasun egarria asetzeko asmoarekin, Atxabaltan "55 tantta" (5 milioi eta erdi) lortzea zen helburua. Hotz-hotzean begiratuta, ez zen helburu makala, bestela ere nahiko lan dugu eta.

Egin egunkari-irratia itxi zutenak oraindik ez dira konturatu herri honek badaukala zer berezi bat, mendez mende sustraitu duen elkarlanaz, gai dela egoera latzenetan ere aurrera egiteko. Horrela, etxea ebatsi dioten pertsona zapalduaren antzera, laguntasuna emanaz, ekin zaio denon artean errealtate bihurtu dugun proiektu berriri honi, dozenaka Atxabaltarrek eman dituzuen aportazioengatik. Bakoitzak

ahal izan duen neurrian lagunduz: akzioak erosiz, diru kopuru bat aportatuz, baita lehen egunetik guzti hau aurrera ateratzeko ahaleginengatik ere. Gazte, kuadrilla, jubilatua, langileok... parte hartu duzuelarik.

Gara egunkariak adierazpen askatasuna indartzeaz gain, Euskal Herriko eraikuntza nazionalari bidea egiten (euskara, euskal kultura, langileen ahotsa, euskal selekzioak...) bultzatu du.

Bukatzeko, Gara egunkariaren lehen zerbakia kaleratzeaz batera, Taberna-Berrin egingo dugun batzar-luntx-era gonbidatzen zaituztegu, urtarriak 30ean, eguerdiko 12etan, diru aportazio-egile, laguntza eskeini edo interesatuta zaudeten guztiok. Bertan kanpainaren emaitza eta sortu daitezkeen galderak argituko dira.

Besterik gabe eta berriz ere esker-rak emanaz,

**Aretxabaletako Baietz  
Plataforma**

## Euskal Presoak Euskal Herrira zapia

Euskal presoek eskubide minimoak bete daitezkeen Aretxabaletako Amnistiaren Aldeko batzordeak herriarroi etxeetako balkoietan, "E.P.H.H." zapia ezartzeko deialdia luzatzen dizue.

Jadanik etxe batzuetan (udaletxean barne) zapiak, ikus ditzakegu baina kanpaina honen helburua ahalik eta jende gehienaren parte hartzea da. Beraz, etxean baldin baduzue jarri balkoietan eta bestela Urbaltz tabernan edukiko dituzue salgai.

Bukatzeko, zapatuan arratsaldeko 7,30etan egiten ditugun enkarteladetan ere guztion presentzia garrantzitsua denez, bertara etortzera animatu nahi zaituztegu.

**Guztion artean Euskal Presoak  
ETXERA!!**

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 eta Faxe eta erantzungailua 943-77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Inaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzaila:** Janette Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

**Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta  
**e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



# Urteko lehenengo ez-ohiko osoko bilkura

## Hamar puntu onartu ziren, horien artean etxebizitzak egiteko zonalde gehiago

Urtarrilaren 18an urteko lehenengo ez-ohiko osoko bilkura ospatu zen. Bertan hamar puntu onartu ziren:

1. Gipuzkoako plaza hiriztatze-ko lanak enkantera ateratzea 23 milioi pezetatan.

2. Kalte materialei, erantzunkizun zibil eta erantzunkizun profesionali aurre egiteko polizak Bilboko Eurobrok enpresari kontratatzea.

3. Udaletxeak Sudadesari Durana 13ko bigarren etxebizitza erostea, 3.500.000 pezetatan.

4. Aretxabaletako eta Eskoriaztzako Udaletxeek 1.500.000 pta. lortzeko hitzarmenaren sinaketa Foru Aldundiarekin. Diru hau Almen, Kurtzebarri eta Luis Ezeiza ikastetxeetako kirol ekintzak bultzatzeko izango da.

5. Enpresa berrien ekimena sus-

tatzeko ordenantzaren behin behinako onarpena.

6. 11-B zonaldean, Iturrigorri frontoi parean, 27 etxebizitza eraikitze-ko dokumentuaren aurkezpena; 30 egunetako epea izango da alegazioak aurkezteko.


7. Udaletxeak Herriko plaza 1-eko lokala Eusko Jaurlaritzako hezikuntza sailari uztea, Kurtzebarri eskolak DBHko klaseak eman ditzan.

8. Udaletxe-ko langileen soldataren igoera IPC-a gehi 0,5a eta 1999rako urteko lanorduen onarpena 1672, iaz baino 2 gutxiago.

9. Udaletxean

behin behinekoak diren idazkari eta kontuhartzaile postuak konkurtsora ateratzea urtero bezala.

10. Udala eta Laminados Aretxabaleta S.A. artean hirigintza hitzarmenaren onarpena. Laminados lantegia dagoen lekuan etxebizitzak egingo dira eta lantegia Baintzeko industrialdera pasatuko da.



Lantegia herriatik kanpora bidali eta etxebizitzentzat egingo da lekua



Arbi Zelai parean kolektorea sartzeko lanak hasita daude

## Kolektore lanak Arbi Zelai parean

Oraindik lehenengo ataleko lanak ez dira bukatu, baina Arientzatik datorren erreakak ur asko ekarri duenez eta honen azpitik pasatu behar denez, egun batzutan lanok gelditu uztea erabaki zuten. Udaletxeak gainera apurketa gehiago egin aurretik lehengo erabat konpon dezaten nahi du, gero eta arazo gehiago sortzen ari baitira.

Kolektorea sartzeko bigarren faseko lanak ere hasiak dira. Herrian arazo gehiago sor ez dadin Arbi Zelai paretik hastea erabaki da eta poliki-poliki gorantz joango dira, Tubos lantegi atzetik, Murubide kalea zeharkatu eta Ota-lora kaletik gora Belorrietan lehenengo atalekoarekin bat egin arte. Bigarren ataleko lan hauek Altuna eta Uria enpresak burutuko ditu eta 500 milioiko aurrekontua dute.

**IRIARTE**

Umeen  
denda



Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 10 96



FELIX  
PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
Lyonel  
Arquero

Dekorazioa:  
Soraya  
Arquero



## Saretxo lanean hasteko prest

Saretxo informatika taldeari lan leku berria egokitzea kostatu baizaio ere otsaileko lehenengo astean berriz lanean hasiko da. "Oraindik erabat zehaztu gabe daukagu antolaketa baina astean hiru egunetan ireki nahi ditugu ateak jendearentzat" esan digu Alberto Izagirre Saretxoko arduradunak.

Ordenagailu berriak erosi ostean ekipamendua nahiko osotua dute eta herritarrei zerbitzu egokia eskeintzeko moduan daude. "Lehengo Pentium 200 eta PC 486-az gain zazpi ordenagailu berri Pentium2 350 ditugu. Bi inprimagailu eta eskanerra ere bada, interneta eta informatikari buruzko aldizkari eta liburuez gain.

Inprimagailu haundiago bat ekarri nahi genuke baina aurrerago izan beharko da" dio Albertok.

### Interneta dohainik

Urteko bazkide kuota jadanik zehaztu dute, 5.000 pta. izango da, bertako ekipamendu guztia erabiltzeko aukera dagoelarik, Interneta barne. Urte osoa ordaintzea interesatzen ez zaienentzat, berriz, hilea 1.000 pta. izango da. Beraien asmoa jendearekin harremanetan jartea bada ere interesatuta dauden guztiek 943 71 26 56 telefono zenbakira deitu dezakete informazio gehiago lortzeko eta inor egon ezean beldur gabe mezua uzteko diote bertako partaideek.

## Zaraia zinemarekin zer egin eztabaidan

Zaraia zinema konpondu beharrean aurkitzen dela ez dago zalantzarik eta horri bueltaka ari dira Udaletxean. Urtarrilaren 14an egindako bileran herriko hainbat talde kulturali Jose Mari Segoviak, Udaletxeko hirigintza saileko teknikariak, aurreproiektua erakutsi eta beren iritzia eskatu zien. Bakoitzak bere proposamen eta beharrak adierazi ostean Jose Mari denak aztertze-kotan geratu zen proiektu zehatza osatu aurretik. Argi dago aurten behintzat zinerik ez dela izango herriko zineman, ea datorren urterako izaten den.

## Hezibideko ikastolen prentsaurrekoa

Joan den ostegunean prentsaurrekoa eskeini zuten Hezibidekoek. Bertan, batetik, "Hezibideren aldeko jokoa, errenta segurua" kanpaina informatiboaren aurkezpena eta, bestetik, lau ikastolek elkarrekin irekiko duten informazio bulego berriaren inaurazioa izan ziren.

Bulego honen helburua gurasoei informazio zerbitzua eskeintzea da, euren seme-alabentzako ikastetxea aukeratu aurretik hurbilagozik ezagutu ditzaten ikastetxeak eta bakoitzaren proiektu ezberdinak. Bulegoa Arrasateko Biteri etorbidea 15 zebakian dago eta astelehenetik ostiralera goizeko 10etatik ordu 1etara eta arratsaldeko 3etatik 7etara egongo da zabalik.



### "Bertatik bertara" programakoak Atxabalta telebistara bisitan

Urtarrilaren 19an bisita berezia izan zuten Atxabalta telebistakoek, Euskal Telebistako "Bertatik bertara" programakoak, hain zuzen. Telebista batek nola funtzionatzen duen erakutsi nahi zutela eta, hainbat grabaketa egin zituzten plato eta kontrol gelan Mikel Uribeberria eta Jokin Antxiarekin hitzegiten ari ziren bitartean. Badirudi, gure telebistako emisioak hasi aurretik Euskal Telebistan ikusteko aukera izango dugula.



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



# X. Loramendi literatur lehiaketaren sari banaketa

**Aurkeztutako 161 lanek maila altua erakutsi zuten epaimahaikoen iritziz**

Pasa den ostegunean, hilak 21, eskolarteko X. Loramendi literatur lehiaketako sari banaketa izan zen. Pozik eta urduri hurbildu ziren bertan parte hartutako hainbat neska mutiko, batzuk guraso eta guzti. Eneritz Urrutiak aurkeztutako saioan, Josu Sarasua, Loramendi euskara elkarteko lehendakaria, izan zen sariak banatu zituena.

Guztira 161 lan aurkeztu ziren, 149 ipuin eta 12 grabaketa. Epaimahaikoen iritziz, lanek orokorrean maila altua zuten eta irabazleak aukeratzea oso zaila gertatu zitzaien.

Hona hemen 1998ko irabazleak:



Urduri ikusten ziren haur eta gurasoak sari banaketa hasieran

## LHko 2. zikloa (3-4 mailak) D eredua:

1. saria: Amaier Lonbide Testa  
(Mundua hankazgora)
2. saria: Maider Orueta Azkargorta  
(Haitzulo iluna)
3. saria: Jon Sanchez  
(Egiptiar txiki eta argia)

## LHko 2. zikloa (3-4 mailak) B eredua:

1. saria: Nerian Fejeiro Paul  
(Izartxo Euskal Herria zeharkatzen)
2. saria: Mirian Vidriales Sanchez  
(Ilargixoren sustoa)
3. saria: Asier Gimbert Duran  
(Errekaren istorioa)

## LHko 3. zikloa (5-6 mailak) D eredua:

1. saria: Ahinitze Errasti Etxeberria  
(Atxabaltako hiru sorginak)
2. saria: Eukene Marrodan eta Leire San Vicente  
(Amona segi kontatzen)
3. saria: Nerea Gil Castro  
(Magia egiten ez zekien sorgina)

## LHko 3. zikloa (5-6 mailak) B eredua:

1. saria: Kerman Colino Lage  
(Zuriñe hegaz etorritako neskatxa)
2. saria: Juan Sanchez Estrella  
(Iker, Xabier, Asier eta Andrea kutsaduraren kontra burrukatzen)
3. saria: Nerea Crespo Iglesias  
(Ton pentsakor dago)

## Grabaketak:

### DBHko 1. zikloa:

1. saria: Mirian Duran eta Mari Carmen Algaba  
(Mary eta Cory)
2. saria: Ane Remedios  
(txiki)
3. saria: Alazne Diaz  
(Negu)

### DBHko 2. zikloa:

1. saria: Leire Otaegi eta Maider Beloki  
(Zipi eta Zape)
2. saria: Maider Otaegi eta Nerea Olivenza  
(Mortadelo eta Filemon)



# Santa Ageda mutilak otsailaren 5erako prestakizunetan

## Bost aste inguru ibiltzen dira dantza entsaioetan

Aste bete falta da ospakizunerako eta jadanik buru belarri dabilta santa ageda mutilak entsaioekin. Asteazken eta ostiraletan izaten dituzte, asteazkenetan erdia inguru bakarrik agertzen dira, besteak kanpoan ikasten daudelako. Igone Zaloña, Ekhi Usandizaga, Eli Blanco eta Ainhoa Calleja dituzte irakasle eta bost astetan ikasten ibili ostean itxurazko zerbait egiteko esperantza daukate.

Urtetik urtera mutil gutxiago dira, aurten berrogei inguru, batzuri, ordea, zarata ateratzeko nahikoa dirrela irudituko zaie. Hauek hain gutxi izanda, neskak ere jaietan parte hartzen hasteko garaia izan daitekeela onartu dute, nahiz eta hau gauza berria izan. Tradizioari kasu eginez gero, Santa Ageda jaia urte hortan

soldaduskara joan behar diren mutilek ospatzen duten festa da; zenbat joaten dira, ordea, gaur egun soldaduskara? Ba ez asko, horregatik antzinako festa galdu gabe tradizioa aldatzen hasteko garaia izan daiteke.

Santa Ageda bezperan, otsailak 4a, baserriz baserri ibiliko dira kantuen truke borondatea eskatuz. Hurrengo egunean, ostirala, kaleko etxeetatik pasatuko dira goizean eta arratsaldean, 7ak inguruan, Herriko plazan nola egiten duten dantzan ikusteko aukera egongo da. Aurten aratusteak oso goiz tokatu direnez, otsailaren 14an, bi igande bakarrik izango dituzte elkarrekin bazkaldu, dantzan egin, kaleetan zaratak atera eta ondo pasatzeko. Ondo arobetxa ditzatela egun horiek, beraiek dioten bezala, bizitzan behin da eta.



**Jonan Ezkibel eta Iñaki Regidor**  
Santa Ageda mutilak

- **Zer moduz doaz entsaioak?**
- Ondo, ez da oso zaila. Desafioa egin behar dutenek zailtasun handiagoa dute, eta horregatik hiru ordu sartzen dituzte astean, besteok bi. Hala eta guztiz, ez pentsa aparte dantzarik ikusiko duzuenik.
- **Zenbat egunetan tokatzen zaizue aurten dantzan egitea?**
- Hiru, Santa Ageda eguna eta beste bi domekatan, aukeran gutxi.
- **Neskek ere parte hartu beharko luketela uste duzue?**
- Tradizioaren arabera ez litzaieke tokatuko baina urtetik urtera mutil gutxiago gara eta behar bada neskak onartzen hasi beharko ginatke.
- **Koherentea al da insumisioa aldarrikatu eta Santa Ageda ospatzea?**
- Bai, bai, tradizioarekin jarraitu egin behar da; bizitzan behin da eta oso ondo pasatzen da.
- **Formal ibiltzeko asmoa duzue...**
- Bai, bai; bueno etxaflero ugari erosi dituzte batzuk, beraz, gero bota egin beharko dira.



*Aurtengo santa ageda mutilak entsaioetan, batzuk falta badira ere*

**Martín**  
RELOJERIA • BITXITEGIA

*Bere bezeroen zerbitzura*

Mitarte, 16  
Tfnoa: 943 79 01 72

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

**RKLI**

URKULU, S.L.

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**GEMES**

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18  
Aretxabaleta

**OSKAR**

HARATEGIA

Loramendi, 1  
☎ 943 79 71 69




# Juan Antonio Rodriguez

## Alkatea

Ederlanen lan egiten du eta bi seme-alaben aita da. Laister lau urte izango dira alkate postuan jarri zenetik eta balorazioa egiteko ordua iritsi dela iruditu zaigu.

Kontatzeko gauza asko baditu ere, hemen alkate kargua izan duen gizona eza-gutzen saiatu gara.



### - Zein da alkatearen lana?

- Herrian atzemandako beharrak kontuan izanik, beste zinegotziekin batera lan eginaz honakoak izango lirarteke bete-beharrik garrantzitsuenak:

• Epe luzearako Udal proiektua zehaztea, urtero begiratu eta aurrekontuetan sartuz.

• Bai ekonomikoki, bai teknikoki, udal proiektu hori betetzen den zaintzea.

• Udaleko osoko bilkura eta gobernu batzordeen buru izan eta zuzentzea.

• Dekretu, gastu, hitzarmen, kontratuak,... sinatzea.

• Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzako laguntzak lortzea.

• Ekintza ofizialetan herriaren ordezkari izatea.

### - Lau urte hauek orokorrean nola baloratuko zenituzke?

- Orokorrean positiboak izan direla esango nuke. Politikoki begirata, partidu guztien partaidetza izan duen lan taldea egotea lortu da. Gas-tua razionalizatu eta zorrak erdira jeitsi dira, proiektuak egin barik utzi gabe eta hasierako proiektuari erantzunaz, hemendik 10-15 urte barruko Aretxabaletaren oinarriak zehazten joan dira.

### - Egin nahi zenuen zerbait egin gabe geratu zaizu?

- Bai, udaletxea berrantolatzea nahi nuen, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko. Aldaketa batzuk egingo dira, harrera leihatila egiten ari bai-

tira erabakiak.

### - Kargu publiko honek prestigioa duela uste duzu edo orokorrean kexa eta protestak bakarrik jasotzen dira?

- Denetik dago. Kargua oso garrantzitsua da baina prestigioa pertsonak berak lortu behar du egiten duen lanaren arabera. Egia da, ordea, gaurko gizartearen eskerronak baino protestak gehiago jasotzen direla.

### - Lau urte hauetan inoiz damutu al zaizu alkate izana?

- Ez, momentu latzak izan dira baina nik banekien kargua hartu nuenean dena ez zela polita eta erreza izango. Familiak okerrago pasa du, arduratuta eta sufritzen ikusi nauelako zenbait momentutan.

### - Udaletxeetan politika egiten da edo herriaren interesak daude lehenengo?

- Aretxabaletan beti herriaren interesak lehenengo egon direla esan dezaket, behar bada zenbait zinegotzi politikoki independenteak garelako.

### - Hurrengo legealdian aurkezteko asmorik baduzu?

- Ez, nik lau urterako konprometua hartu nuen eta bete dut. Ez daukat politikoki aurrerago joateko inolako interesik eta orain nire zeregin profesionalei heltzeko ordua heldu da. Gainera jende berria sartzea komeni dela uste dut, ilusio berriekin datorrena.

### - Zein aholku emango zenioke hurrengo alkateari?

- Garrantzitsuenak hiru izango lirarteke: herriaren interesak partidukoaren edo norberaren interesen aurretik jartzea; arazoei irtenbideak aurkitzea eta ez irtenbideei arazoak, eta azkenik, lan taldea osatu eta taldean lan egin dezatela, aurreko bi aholkuak jarraituz. Udal gestioa aurrera eramateko bide bakarra dela iruditzen zait.

## “Gure artean giro ona izan da, elkarrenganako errespetua nagusitu baita”

tira, baina ez da nahiko izango.

### - Legealdi honetan egin edo lortu duzuen zerk eman dizu poz handiena?

- Talde guztien parte hartzeak. Zinegotzi bakoitza komisioko bateko arduradun izan eta talde politiko guztiak gobernu batzordeetan egotea oso positiboa izan da. Gure artean giro ona izan da, elkarrenganako errespetua nagusitu baita.

### - Azken hitza beti alkateak du?

- Ez, noiz eta non aldatu egiten da. Gobernu batzordea entzun ostean onartzen diren alkate dekretuetan bai, berak du azken hitza, plenoetan, berriz, ez, bozketa bidez hartzen bai-



# Pausoka haur eskolak...

1999-2000 ikasturterako izena emateko epea zabaltzen du




*Euskaraz hazi eta hezi*

Otsailaren 1etik 12ra,  
6etatik 7etara bitartean  
**Pausokan**

- Otiak 3 urtera bitarteko haurrak talde egokitueta
- Ordu-tegi zabalak:
  - Goizeko 7,30etatik arratsaldeko 6ak arte
  - Ordu-tegia moldatzeko aukera
- Jangela zerbitzuak:
  - Gosaria: bertan gertatutako janaria
  - Bazkaria: haur bakoitzari egokitutako dieta
  - Askaria
- Logela
- Ikasturtea iraila eta uztaila barne

Otalora, 27 behea  
943 77 03 77

*Kalitateak mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano  
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia  
Tel.: 77 11 30  
ARRASATE





## Euskara lan munduan

**“Euskara lan munduan erabilia izateak, hizkuntzari gaur egun ezinbestekoa den zerbait emango lioke, prestigioa.”**

Dagoeneko gure gizarteko arlo gehienetan euskarak garapen bat izan du. Baina badago arlo bat, lan mundua, oraindik ere erderaren geto bat duguna.

Lan munduan euskara bultzatzeko arrazoi asko daude, esku-bide kontuak alde batera utzita ere, dagoeneko gazteek euskaraz ikasten dute, beraz kontraesana da euskaraz ikastea gero lanean ez erabiltzeko. Bestalde gure ingurunea, gure bailara neurri haundi baten euskalduna da eta hori lantegietan igarri egin beharko litzateke. Horretaz aparte, beste lantegi batzutan, Fagorrek kooperatibetan adibidez, beraien estatutoetan ere agertzen da euskara bultzatu behar hori. Nik, dena den, arrazoi bat jarriko nuke beste guztien gainetik, euskarak, geroari begira behar beharrezkoa du lan munduan sartzea.

Denok, edo gehienok behintzat lan egin beharra dugu eta gure bizitzako ia heren bat lanean pasatuko dugu. Bertan euskara ez badugu erabiltzen ezingo dugu esan euskaraz bizi garenik.

Euskara lan munduan erabilia izateak, hizkuntzari gaur egun ezinbestekoa den zerbait emango lioke, prestigioa. Hau da ez da-

kienari ikasteko beharra sortuko lioke (gaur egun ingelesarekin gertatzen dena, Euskal Herrian lan egiteko ingelesa gero eta beharrezkoagoa da, euskara berriz ez). Gehiago esango dut, lan mundua euskalduntzea lortuko bagenu euskara salbu izango zen.

Eginkizun hau ez da samurra, ohituren poderioz lantegietan nekez aurkitu dezakegu euskararen aztarnarik txikiena ere, eta hau aldatu beharra dago. Baina, nork egin behar du lan hau? Guk, euskaldunok, beste inork ez du gugatik egingo eta. Gainera konplexu barik egin behar dugu, gure hizkuntza beste edozein bezain baliagarria delako gizarteko edozein arlotan erabilia izateko.

Une honetan sumatzen dira mugimendu batzuk, MCC euskara plangintzetan murgilduta dago, bestalde Kontseilua ere hor dator Bai Euskarari akordioa dela eta. Hau dela eta, euskararen potzu ilunean argi izpi bat ikusten da, Gabonetako kandelak ematen dutena bezalakoa, baina argi hori bizirik mantentzen eta indartzen saiatu behar gara, zeren itxungitzen bada agian ez da berriro piztuko.

Josu Urkia

**LEIBAR**  
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 943 77 13 79  
ARETXABAETA



**KRISTALDEGIA**

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

Herriko plaza, 8 behea  
☎ 943 79 81 78 ARETXABAETA



# Euroa, zarata ugari mamirik ba ote?

Denok dakigu zer den euroa, zenbat pezeta balio duen eta noiz helduko den guregana (ziur ez bada ere, bai behintzat gutxi gora behera). Burtsan jadanik eurotan hitzegiten da eta banku eta kutxetako estraktuek ere pezeta eta eurotan ematen dituzte datuak. Gehientsuenok, ordea, oso urruti ikusten dugu egun hori eta garrantzi gehiegi-rik ere ez ematea erabaki dugu, datorrenean datorrela.

**Baina benetan gertu ote gaude aldaketarako?**

Aspaldi entzun genuen 1999an Europako Moneta Batasuna osatu eta euroa martxan jarriko zela. Baita heldu ere 1999ko urtarrilaren 1a eta euroa martxan da. Oraindik ez da herritarren eskuartera iritsi, horretarako 2002. urteko urtarrilaren 1 arte itxaron beharko da hala eta guztiz bat baino gehiago ezustean harrapatuko du.

## EUROAREN HISTORIA

Europako historian zehar hainbat aldiz herri ezberdinak elkartu eta txanpon bakar bat sortu nahi izan dute; hala nola 1865. urtean Frantzia, Italia, Belgika, Suiza eta Greziak, Latindar Moneta Batasuna sortu zuten. Hau I.Munduko Gerrarekin desagertu zen.

II. Munduko Gerrate ostean Europa bakar bat sortzeko ahaleginak birsortu egin ziren. 1958. urtean Europako Komunitate Ekonomikoa sortu zen, gaurko Europar Batasunaren aita, eta honen barruan bertako moneta agertu da,

euroa. Lehenengo pausoak 1990-ean eman ostean 1999an hirugarren etapari ekin zaio, Europako Moneta Batasuna lanean hasiz. Etapa honi 2002. urtean emango zaio bukaera diru eragiketa guztiak eurotan egiten hastean.

## EUROPAKO MONETA EZ ZEN ECUA?


Ecu moneta europarrek osatutako saskia da. Maastricheko hitzarmenean ecu-a aipatu bazen ere moneta ofizialtzat Alemania aurka jarri, eta azkenean euroa izango da. Ecu, ordea, 10 urte baino gehiagotan erabili izan da bankuko trantsakzio, kreditu eta inbertsioetan. Enpresa internazional, eta Europar Batasuneko erakundeetan ere erabili da, proiektu, dirulaguntza, etabarrerako. Urtarrilaren 1ean

guztiz desagertu zen ecu-a, euro/ecu 1=1 trukea eginez.

## EUROPAKO MONETA

Euroaz hitzegiterakoan europako moneta dela esaten da baina Europan ez daude Europar Batasuna osatzen duten herrialdeak bakarrik, eta E.B.-eko guztiek ere ez dute onartu moneta berri hau. Momentuz euroa ondorengo herrialdeetan aurkitu ahal izango da: Alemania, Frantzia, Austria, Holanda, Belgika, Espainia, Luxenburg, Irlanda, Finlandia, Portugal eta Italia. Erresuma Batua, Danimarka eta Suedia kanpoan geratu dira borondatez eta Grezia ere kanpoan geratu da eskatutako baldintzak ez dituelako betetzen.

Estatu hauetara eta E.B.-ean barneratu gabeko beste hainbateta-



*Erresuma Batua, Danimarka, Suedia eta Grezian momentuz ez da eurorik izango*



## Egunero egin beharko diren aldaketak:

• ogi barra	100 pta. = 0,60 euro
• kafesne bat	160 pta. = 0,96 euro
• txikito bat	90 pta. = 0,54 euro
• olio botila	380 pta. = 2,28 euro
• legatz kiloa	1.800 pta. = 10,82 euro
• disko bat	2.800 pta. = 16,83 euro
• fraka pareia	8.500 pta. = 51,09 euro
• soldata bat	180.000 pta. = 1.081,86 euro
• etxebizitza bat	19.000.000 pta. = 114.192,30 euro

ra joatean euroa bertako moneta-  
ren ordezkatu beharko da,  
orain artean egin bezala eta tru-  
kearen balioa aldakorra izango da.

### PEZETA-EURO TRUKEA

Euroaren prezioa moneta ba-  
kartzat hartuko duten estatuek era-  
baki dutē. Truke tasa finkatzeko  
erabakia Europako Kontseiluak  
hartu zuen eta 1999ko urtarrilaren  
1etik aurrera truke tasa hau alda-  
ezina da. Hainbat kalkulu egin  
ondoren euro batek 166,386 peze-  
ta balio izatea erabaki zen.

Euroak Europako Moneta Ba-  
tasuneko herrialde guztietan balio  
berbera izango du, beraz, Berlinen  
ogia, Parisen bonboiak edo Lis-  
boan taxi bat eurotan ordaindu  
ahal izango da inolako trukaketa  
beharririk gabe.

1999 eta 2002 artean dagoen  
hiru urteko tarte hau herritarrak al-  
daketara ohitzeko, enpresa eta  
administrazio publikoek informazio  
sistemak berritzeko eta bilete  
eta txanponak egiteko erabiliko  
da. Txanpon eta bileteak oraindik  
materialki erabilgarri ez diren  
arren, jadanik txekeak kobratu eta  
banku transferentziak egiteko  
erabili daiteke euroa, banku  
kontuak ere zabal daitezke.

2002ko urtarrilaren 1etik au-  
rrera pezeta eta euroa batera era-  
biliko ditu jendeak eskuartean, sei  
hilabete ostean pezeta desagertu

arte. Hasieran, behintzat, aldaketa-  
ra ohitzea askori kostatu egingo  
zaio eta hau errazteko kalkulagailu  
bereziak atera dituzte enpresa ez-  
berdinek. Horietako bat Aretxaba-


**“Euro batek  
166,386 pezeta  
balio izatea  
erabaki zen”**

letan kokatutako Diara Desing en-  
presak diseinatu zuen, EURO-  
truke kalkulagailua, hain zuzen.  
Pezetatik eurora trukea egitean  
dezimalak ere ondo kontuan izan  
behar dira, horiek zentimoak  
osatzen baitituzte eta batzuk uste  
baino balio haundiagoa dute.  
EURO truke kalkulagailu honen  
ezaugarri garrantzitsuena 3.  
dezimala borobiltzea da, euroak  
beti bi dezimal izan behar baititu.

### ABANTAILA ETA DESABANTAILAK

Zaila da zehatz zein abantaila  
eta desabantaila ekarriko dituen  
auresate. Ikuspuntu praktikotik  
begiratur euroak honako alde txar-  
rak ditu: aldaketara ohitzeko ara-  
zoak, salneurrien erreferentzia gal-  
tzea, dezimalak borobiltzeagatik  
prezioek igotea eta hasieran, be-  
hintzat, salneurri bikoitzekin lan  
egin beharra. Kaltetuenean artean  
errentadunak edo errenta finkoko  
inbertitzaileak (urteko interes-tasa  
bajuagoak lortuko baitituzte) eta  
aldaketara moldatzeko arazoak  
dituztenak egongo dira, pertsona  
nagusiak, esaterako.

Abantaila haundienak, berriz,  
soldapekoek, pentsiodunek, kon-



2002. urtean eskuartean izango ditugun bilete eta monetak



tsumitzaileek (prezio bajuagoan eskaintza haundiagoa izango baitute), bidaiari edo turistek eta zorretan daudenek lortuko dituzte. Bidaiatzea, zalantzarik gabe, merkeagoa izango da orain arte txanpona aldatu beharra zegoenez bankuek komisioa kentzen baitzuten.

Orokorrean euroa erabiltzen hasten denetik aurrera, soldaten iguera txikia izango da, inflazioa Moneta Batasuna osatzen duten beste herrialdeetan baino haundiagoa ez dadin izan. Berez, prezioek ere ez lukete igo beharko baina dendari batzuk, pezetatik eurora

**“Kaltetuenen  
artean errenta  
finkoko  
inbertitzaileak eta  
aldaketara  
moldatzeko  
arazoak dituztenak  
egongo dira”**

aldaketa egitean sortzen diren dezimalak gainetik borobiltzeko joera har dezakete.

**EUROA 300 MILIOI LAGUNENTZAT**

Euroak zalantzarik gabe, mundu mailan garrantzi handia izango du. Euroaren Europa, 300 milioi biztanle ingurukoa, munduko bigarren indar ekonomikoa izango da eta nazioarteko merkataritza mailan lehena.

300 milioi lagun 2002ko urtarilean euroa erabiltzen has daitezkeen beharrezkoak diren 12.700 milioi bilete eta 80.000 milioi txanpon egiten hasiak daude jadanik. Hasiere batean, behintzat, orain arte bileteak egin dituzten enpresak arduratuko dira euroa egiteaz. Herrialde bakoitzak bere aurpegiak jarteko aukera izan

**euro 1 = 166,386 pta.**

**Baliokidetasunerako  
erreferentziak:**

- 500 pta.      3 euro
- 1000 pta.    6 euro
- 1500 pta     9 euro
- 2000 pta    12 euro

arren bilete eta txanponetan, europar batasuna adierazten duten hamabi izarrak moneta guztietan joan beharko dira.

Euroko bileteak 5, 10, 20, 50, 100, 200 eta 500ekoak izango dira eta monetak 1 eta 2 eurokoak eta 1, 5, 10, 20 eta 50 zentimokoak. 500 eurotako bileteak 83.190 pta.ko balioa izango du eta zentimo 1eko txanponak, berriz, 1,66 pezetakoa.

**IRITZI EZBERDINAK**

Europako Moneta Batasuna osatzen duten herrialdeetako gobernuak oso baikor azaltzen badira ere euroaren etorreraren aurrean eta herritarrek konbentzitu nahian badabilta ere, denak ez dira iritzi berekoak.

Amartya Sen ekonomilari indiarak, 1998ko nobel saridunak, esaterako, inflazioa gutxitzeari lehentasuna emango zaiola uste du, langabeziaren arazoa bigarren postuan utziz. Kontutan hartu behar da gainera, batetik langabezia tasa Europan oso handia dela, eta bestetik herrialdearen arabera ezberdina dela.

Zer gertatuko da herrialde batek arazo ekonomikoak ditueanean? Gai izango ote gara motxila bizkarrean hartu eta Europara lan bila joateko? Gutxienez sei hizkuntza ikasi beharko ote ditugu Europako lan munduan lehiakorrrak izateko? Galdera ugari, gobernuek ere erantzuten asmatuko ez dituzten galderak.

*Euroaren etorrerak hasiera-ko egunetan burtsa hankaz gora jarri zuen, nahiz eta aspaldi iragarritako sarrera izan. Lehenengo bi egun eta erdian indizea %10 igo zen faktore teknikoengatik. Inbertsore eta banketxe askok negozioak aurten egitea erabaki zuten eta ondorioz diru asko sartu zen merkatuan. Hirugarren egunak aurrera egin ahala Brasilgo arazoei buruzko zurrumurruak heltzen hasi ziren eta horrek irabazitako guztiaren galera ekarri zuen. Momentu honetan euroak baino gehiago munduko herrialdeen egoerak agintzen du burtsan ere eta beldur handia dago. Euroak banketxe arteko hitzarmen eta elkarketa prozesuak bultzatu eta aurreratu ditu. Jakin badakite eta luzera begira produktibitate haundiena dutenek aginduko dutela eta aurrera egin, bitartean beste batzuk, txikienak, atzean geratuko dira.*


*Euroa langabezia tasa gora doan herrialdeentzat arrisku-tsua izan daiteke, Alemaniarentzat esaterako baina Espainiar estatuarentzat, orokorrean, positiboa izango da. 1998an, bere etorreraren iragarpenaz inflazioa kontrolatu eta interesak jeitsi egin ziren, horrek inbertsioak egiteko erraztasuna ekarri zuen eta beraz ekonomiak gorantz egin du.*

*Juan Mari Otxoa*



# Berriz ere bizikletari heldu dio Xabier Lazpiurrek

## Kaiku taldeko afizionatuetan burutuko du denboraldia 28 urteko atxabaltarrak



Xabier Lazpiur txirrindularia

Xabier Lazpiurrek, hiru urte korritu barik egon ondoren, berriro ere txirrindularitzara bueltatzea erabaki du. Urtebeteko konpromezua hartu du eta datorren denboraldia Kaiku taldeko afizionatuetan burutuko du. Txirrindularitzarekiko zaletasun haundia izateak eta fisikoki ondo aurkitzeak animatu dute ostera ere

bizikleta hartzera.

### Zaletasuna eta konpetizioa

Xabier Lazpiur Baneston profesionaletan aritu zen hiru urtez, eta ondoren, Euskadi taldean egin zituen beste pare bat urte. Lesioek txirrindularitza uztera behartu zuten eta hiru urtez egon da bizikletan ibili barik. Bere zaletasunak, ostera, bizirik iraun du orain arte, eta iazko urtean zehar Forum Sport-en lanean ari zela, Arrasateko zikloturistekin irteten hasi zen eta 12.000 km egin zituen urte bukaerarako. "Iaz oso gustora ibili nintzen eta honek bizikleta hartzera eta konpetitzera animatu nau", dio Xabierrek.

Oraintsu hasi da entrenatzen eta momentu gogorra dela esaten duen arren, hemendik hilabete ingurura, denboraldia hasiko denerako, forman egotea espero du. Ilusio haundiz ekingo dion denboraldian zorte ona opa diogu Xabierri.

## Eskupilota txapelketa

Kiroletxean eskupilota txapelketa antolatu da otsailaren 20tik apirilaren 24ra. Federatu gabe egon eta esku pilotan jolastu nahi duten guztientzat zuzenduta dago eta binaka eta 4 1/2 barruan jokatu da. Bi maila egongo dira, alde batetik, federatu ohiei zuzendutakoa, erdi mailako pilotekin. Beste aldetik, pilotariak izan ez direnak, eta hauek pilota goxoak erabiliko dituzte. Prezioa Deba Garaiko kirol zerbitzuetako bazkideentzat 1.500 pezetakoa da eta gainontzekoentzat 2.000 ptakoa. Izen emateko epea otsailaren 12an bukatuko da eta kiroletxean egin daiteke.

## Pala txapelketa

Aurreko urteetan bezala aurten ere pala txapelketa antolatu da, baina ohikoa baino lehenago izango da, otsailaren 20tik apirilaren 24ra bitartean. Gomazko paletan jolasten aritzen direnei zuzenduta dago eta binaka jokatu da. Izen ematea kiroletxean egin daiteke otsailaren 12a baino lehen. Prezioari dagokionez, Deba Garaiko kirol zerbitzuetako bazkideek 1.500 pta. ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 2.000 pta. Bi txapelketak Deba Garaiko zirkuitorako puntuagarriak dira.

ARGAZKI

*Urkiola*

Tfnoa: 943 79 39 20  
ARETXABALETA

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABALETA

Izozkitekari-Gozotegia  
**IZOZKITEGI**

Otalora, 11  
Tfnoa: 943 79 93 58  
ARETXABALETA



**ANDRA  
MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26

**IBARRA  
ESTANKOA**



Tabakoa eta  
ikasmateriala


Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

**Iber**

★ Loteria ★  
✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2  
Tfnoa: 943 79 04 39

*Okindegia - Gozotegia*



*Aretxabaleta*

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81


Aretxabaleta  
Bertako okina



# Jokin Romero

## Snowboard-az elurretan behera

Jokin Romerok snowboard-a praktikatzen du orain bost urtetatik ona. Probatu zuenetik, gustua hartu dio edurretako modalitate honi eta negua noiz iritsi zain irrikitan egoten da; tabla hartu eta pistetan gora eta behera ibiltzeko. Eskia baino askoz erakarriagoa dela uste du, "tablarekin saltoak egin eta ez baitu teknika berezirik eskatzen".



### • Noiztik snowboard-a praktikatzen?

Gaztetan eskiatzen joaten nizen nire osaba-izebarekin. Orain bost urte snow-a probatzeko aukera izan nuen eta harrez gero beti tablarekin ibili naiz. Eskia baino askoz ere erakarriagoa iruditzen zait eta geroztik ez ditut eskiak hartu.

### • Desberdintasun haundia dago bi modalitateen artean?

Bai, eskian pistetatik jeitsi bakarrik egin zaitezke eta snow-an saltoak ere egin daitezke. Orain arte pistetan gora eta behera bakarrik ibili naiz, baina orain saltoak egiten ikasten ari naiz. Snow-a, bestalde, samurragoa dela esaten dute.

### • Nora joaten zara edurraz eta snow-az goatzera?

Normalean Frantziako Pirineo-tara joaten naiz, Cauterets, Luz Ardiden, Gavarnie... Alpeetan ere egona naiz eta, egia esan, hura beste mundu bat da. Izugarriko pista luzeak daude, zoragarria da.

### • Zein teknika eskatzen du snow-ak?

Nik neure kontu ikasi dut, monitore barik. Ez du teknika berezirik eskatzen. Frenatzeko giroak egin behar dira eta denbora

## “Behin snow-a probatu ondoren, ez da eskiatzera bueltatzen”

guztian giroak egiten ibili behar da, bestela zuzen joanez gero... Gero saltoak egitearena beste kontu bat da. Orain saltoak egiten ikasten ari naiz, eta horretan pasatzen dut denbora gehiena.

### • Saltoak aipatu dituzu, nola moldatzen zara?

Nahiko zaila da. Salto txikietatik hasi beharra dago. Hasieran, gainera, kolpe izugarriak hartzen dira, ipurdialdean batez ere.

### • Kirol garestia da nahi beste praktikatu ahal izateko?

Bai. Merkeagoa balitz gehiago joango nintzateke, baina garestiegia da. Bertan etxea edukita merkeagoa da baina lo egiteko lekua alokatu, bidaiak eta forfaitak, asko igotzen dute. Merkeago irteten du taldean joanda, mendizale taldeekin edo antolatutako bidaiarekin, bakarrik joanda baino.

Guzti honez gain, oraindik ekipoa alokatu behar baduzu, hau eskiak alokatzea baino garestiagoa da.

### • Eta ekipoa, berriz, zenbat balio dezake?

Snow-a praktikatzeko tablak, fijazio barik, 100.000 pta. inguru garestienak, eta merkeenak 30.000 pta. inguru. Fijazioak 15.000 eta 30.000 pta. balio dute eta botak ere nahiko garestiak dira.

### • Snow-a egiten duzuenok janzkera berezia erabiltzen duzue. Nola deskribituko zeniguke?

Surf-a, snow-a, nahiko lotua dago bata bestearekin. Ni gaztetatik patinetean ibili izan naiz eta orduan eramaten nuen janzkera eta gaurkoa antzekoa da. Erropa, fraka, jertse eta niki oso zabalak erabiltzen dira.

### • Patineteak eta snow-ak badute antzekotasunik?

Zertxobait badutela esan daiteke, baina snow-an hankak loturik eramaten diren bitartean, patinetean ez.

### • Edurretako beste modalitateerik praktikatzen duzu?

Orain snow-ean buru-belarri nabil saltoak egiten ikasi nahian. Behin tabla hartutakoan, zaila da eskiak osteratzea. Snow-a dibertigarriagoa da, eta edurra egin berri badago hobe.



# TABERNA eta JATETXEEN GIDA


## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 85 57

## Artano taberna

**Herriko  
plazan  
ARTANO**

*Girorik onena*

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

## Gurea taberna

**Jatetxea eta  
taberna**

**GUREA**

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## Basabe jatetxea

*Menu eta  
afariak*  
**BASABE  
JATETXEA**

Basabe poligonoa • 943 79 91 84

## Arlutz taberna

**ARLUTZ**

*Gustoko musika*

Mitarte, 16 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • 943 79 92 01

## Goyaran erretegia



**GOYARAN ERRETEGIA**  
*• Puntako espejialitatea*

Solohaundi-8 ARETXABALETA  
943 79 68 57

## Mendiola erretegia

**ESKORIATZA**

Tfno 714345



◆ *Bazkari  
eta afariak*

*Astelehenetan  
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Bazter alde jatetxea



**Sasoiko  
jakiak  
giro  
onenean**

Galartza auzoa  
943 79 24 58  
ARETXABALETA

## Dorleta taberna

**Dorleta**

*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi 8 • ARETXABALETA  
943 79 94 15

## Mitartegarai

**Mitartegarai**  
*Jatetxea*

Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 17 51



## Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

**Josu harategia**

Mitarte, 1 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 77 03 08

## Taberna Berri



**Taberna Berri**  
Durana, 26 • ARETXABALETA  
943 79 20 67

## Urbaltz taberna

**URBALTZ**  
TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA





## 1962ko santa ageda mutilak

**A**rgazkian formal eta alaitsu ageri diren mutilak, 1942. urtean jaiotako kintoak dira, hau da 1962an Santa Ageda jaia ospatu zutenak. Gaur egun 18 urtekin ateratzen badira ere, santa ageda mutil orduan 20kin izaten zen eta kaletar eta baserritarrak banandurik ibiltzen ziren; kaletarrak zuriz jantzirik, baserritarrak baserritarrez. Baserri eta kaleetako etxeetan janari eta dirua batu ostean, Akilinoen etxean afaldu ohi zuten eta afalostean bertan gelditzen ziren ordu bata inguru arte. Orain ordubaketan festa hasi egiten da, nola aldatu diren gauzak... Argi dago, ordea, bizitzan behin dela (nahiz eta argazki honetako hiru urte bereko kinto ez izan eta behin baino gehiagotan errepikatū) eta santa ageda mutiletako oroipena betiko geratuko zaiela.

Goian ezkerretik hasita: **Ignacio Jauregi, Pedro Urcelai, Alberto Arkauz, Jose Luis Gorostiaga, Jesus Berasaluze, Jose Antonio Elortondo, Jose Antonio Azkoitia.**

Behean ezkerretik hasita: **Anjel Iñurrategi, Remigio Gastañaga, Jose Antonio Arenaza, Roberto Aldalur, Jose Antonio Zubizarreta, Jose Mari Elkoro.**

### Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

### Angelines AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

### Etxabe harategia

Durana 4  
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

### MIREN & ZURIÑE BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 943 77 13 57





## LANA

◆ Egun erdiz **kazetari lanak** egiteko pertsona bat behar da **Atxabalta telebistarako**.

Baloratuko dena:

- euskara maila
- herrikoa izatea
- esperientzia izatea

Curriculum-ak udaletxe zahar-  
rera, Durana 11 2. pisura ekarri  
edo Aretxabaletako 151 postaku-  
txatilara bidali. Aurkezteko epea  
urtarrilaren 29an bukatuko da.

◆ 2. DBH arteko ikasleei **klase partikularrak** emango nizkieke. Interesatuak 943 79 25 62 telefo-  
no zenbakira deitu (Arantzazu).

◆ Esperientziadun neska bat **ileapaindegian lan** egiteko prest. Tfnoa: 943 79 72 77

◆ **Langaiko lan eskaintza**

**Teknikari elektrikoa.** Deba Behea.  
Ref: 15490/6

**Sukaldaria.** Goierri.  
Ref: 15508/4

**Metrologian teknikaria.** Tolosa.  
Ref: 15581/1

**Analista programatzailea.** Sondika. Ref: 15693/2

**Okelaren industriaren ikastuna.** Plentzia-Mungia.  
Ref: 15798/4



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura Dohainik da.**

◆ **Lan eskaintza publikoak**

**Aretxabaletako Udala.** Liburuzain laguntzailea. Titulazioa: BBB edo baliokidea, 3. HE. Oinarriak: GAO 99/1/5



## DENETARIK

◆ Aretxabaletan taberna alokagai. Tfnoa.: 943 790147. Jose.

◆ Donostia edo inguruetan pisu konpartitu batean bizi baldin bazara, eta lekua libre baduzu, deitu 943 79 06 75 telefono zenbakira (Saioa).

◆ Aretxabaletan logelak alokatzen dira sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu 943 79 05 26 telefono zenbakira.

◆ Mutil amerikar batek gaztelaniazko klaseak hartu nahiko lituzke. 943 79 77 28 telefono zenbakira deitu gauzez.

◆ Bigarren eskuko trabesiako eskiak erosi nahi dira. Norbaitek izanez gero 943 79 27 14 telefono zenbakira deitu dezala (Amaia).



## ETXEBIZITZA

◆ Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 80 41

◆ Pisu bat saldu nahi dut Aretxabaletan. Tfnoa: 943 77 18 54 (9etatik 6etara deitu).



## LEHIAKETAK

◆ **Aretxagazetako erreportaia lehiaketa.** Aretxagazeta aldizkariak, 16 urtetik gorako Aretxabaletan bizi edo ikasten dutenei luzatzen die deialdia. Lanak euskaraz eta luzeraz hiru orrialdetakoak izan beharko dute. Gaia Aretxabaletakin lotutakoa izan dadila eskatzen da eta gaiaren originaltasuna, euskara, datu bilketa,... baloratu-ko dira. Erreportaiak banaka nahiz taldeka entregatu ahal izango dira, sobre itxi batean kanpoko aldean lanaren izenburua eta gaitzizena adieraziz, Aretxagazetako lokalean (Durana 11, 2.). Aurkezteko epea 1999ko otsailaren 12an bukatuko da. Irabazleen izenak 1999ko otsailaren 25eko alean argitaratuko dira; epaimahaiak lehiaketa sari gabe utz dezake eskatutako maila lortzen ez bada. Sariak: lehena 20.000 pta. eta bigarrena 10.000 pta. Erreportaiak Aretxagazetaren esku geratuko dira eta nahi duenean argitaratu ahal izango ditu hala iritziz gero, beti egilearen izenarekin sinatuta.



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15  
☎ 943 79 34 28 • Faxes: 943 79 34 28

# CONSUM EROSKI

*Orain arraindegia  
eta okindegiak, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA



# Hile bukaera heldu da



Hile bukaerara iritsi gara, azkenean, noiz kobratuko zain, benetan hile luzea egin baitzait. Eskerrak tartean zer ikusirik egon den...

Negu kulturalari bukaera emateko umeeek **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailasoen ikuskizuna izan zuten; haurrak adi adi eta gurasoak barrez lehertu beharrean egon ziren, bai ikuskizun xelebrea. Ez dakit San Sebastian santua Aretxabaletatik pasatu zen baina urtarrilaren 20an **taborrada** dotorea eskeini zuten bai Kurtzebarri, bai Santa Rita eskoletako ikasleek. Batzuk ez zuten tanborrarekin asmatzen eta beste batzuri txanoak ihes egiten zien baina gurasoak aho zabalik egon ziren argazki eta bideo kamarek lana emanez.


Nagusien kontuekin hasteko mendi aldera joko dut, Zaraia Mendizale Taldeak finalista

eguna ospatu baitzuen orain egun batzuk Mendiola Burun. Bertan arrazoi bat edo besteagatik sariak ematen dituzte eta gazte-xoenen artean aurtengo sarituak **Iban Luelmo, Estela Ruiz, Shanti Larrañaga, Larraitz Garai, Esti Larrañaga, Esti Fabian, Leire Aranegi** eta **Ander Fabian** izan dira.

Barre galantak bota zituzten batzuk joan zen eguakotxean Arrasaten ospatutako moda desfilean. Bertan hamaika atxabaltar jubilatukoak **Felipa Gonzalez, Teodulo Toledo, M<sup>a</sup> Karmen Bakaikoa, Pako Unanue, Pilar Zulaika, Eduardo Urkia, Luis M<sup>a</sup> Beitia, Benita Miguel, Gonzalo Martin** eta **Julita eta German Gonzalez** izan genituen erroparik modernoenez jantzita. A ze estilo dotorea erakutsi zuten desfilatzeko orduan! Modelito pase tartean, berriz, drag queen misterioitsuak agertu eta beraien artean bi atxabaltar atzeman nituen **Kepa Errasti** eta **Ainhoa Cabero**. Nik bai bista fina ...

Bukatzeko, badakizue zapatu honetan aldizkari eta egunkari berri bat izango ditugula kalean, Extrak kirolen inguruan hilero aterako duen **Deba sport** eta Egin egunkariaren ordeztuko den **Gara**. Zorionak biei eta aurrera, egunkari bat kaleratzen den bakoitzean informazioaz gain iritzi eta ikuspuntu ezberdinak ateratzen baitira.

## Liburutegiko txokoa



**Jiran-Biran**  
Pello Añorga  
Marrazkiak, Jokin Mitxelena  
Aizkorri, 1998  
(Mendi Sorgindua saila)  
6 urtetik aurrera

**P**ello Añorga ipuin kontalaria da. Duela gutxi, Pazaroan hain zuzen, Udal Liburutegian izan zen ipuin kontari eta oraingo honetan poemaz betetako liburu honekin dator. Poema labur bezain musikalak direla esan daiteke, ozenki irakurtzeko eginak; soinuak baitu hemen garrantzia batez ere eta isiluneek ere bai. Pelloren ipuinak entzun dituenak haren estiloa gogoratuko du berehala eta hitzarekin jolasteko aukera izango du berriz ere. Jokin Mitxelenaen marrazkiak gainera oso egokiak dira poema hauek ulertzeko eta girotzeko ere.

Joseba Lopez de Armentia



# URTARRILA

30

zapatua

## ITOIZ BIZIRIK MANIFESTALDIA

Itoizko koordinadorak **"Itoiz bizi-rik"** lemapean manifestaldia antolatatu du Iruñean. Arratsaldeko 5etan irtengo da Iruñeako autobus geltokitik.

# OTSAILA

2

martizena

## ALMEN IKASTOLAREN BILERA

Almen ikastolak Lehen Hezkuntzako bilera egingo du, aurten, 6 urte bete edo Lehen Hezkuntzako lehenengo kurtsoan matrikulatu behar duten umeen guraso guztiei zuzenduta. Euskarazko bilera arratsaldeko 5,45etan izango da. Gaztelaniazkoa, berriz, arratsaldeko 7etan.

## PORROTX PAILASOA

Urtarrilerako berri eman arren azkenean atzeratu egin zen Kultur errota barruko emanaldi hau. Arratsaldeko 5,30etan Ludotekan egongo da Porrotx bertako umeekin jolas egiteko, leku arazoagatik bazkideentzat bakarrik izango da.

3

eguztina

## SAN BLAS EGUNA

Urtero bezala Sailuenteko ermitan meza izango da goizeko 10,30etan eta ondoren, 11ak aldera, bertara eramandako janariak bedeinkatuko ditu parrokoak.



*Jende ugari bilduko da Sailuenten*

4

eguna

## ALMEN IKASTOLAREN BILERA

Almen ikastolak, DBH-ko bilera egingo du arratsaldeko 6,30etan Almenen. Aurten 12 urte beteko dituzten edo DBH-ko lehenengo kurtsoan hasiko diren neska-mutilen guraso guztiei zuzenduta dago bilera hau.

## SANTA AGEDA BEZPERA

Santa ageda mutilak baserri baserri joango dira, Santa Ageda abestia kantatu eta janari eta dirua batzen.

5

egukotxa

## SANTA AGEDA EGUNA

Santa ageda mutilak goizean herriko kale eta etxeetan ibiliko dira dirua batzen. Arratsaldeko 7etan, berriz, aurtengo lehenengo dantza saioa izango dute plazan.

**"ARINSA"**

**Aretxabaletako industrialdea S.A.**

Basabe poligonoa "EO-10"  
Tfnoa: 943 79 62 80  
ARETXABALETA

**Mobiliario  
ARENZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA  
BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 943 79 44 28  
ARETXABALETA

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

*Bereziki: Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia*

**IMANOL  
JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

**ARETXABALETA**

**ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA



7

domeka

**MENDI IRTEERA**

Zaraia M.T.ak **Ermua-Gesalibar** mendiri irteera antolatuta du Gipuzkoako itzuliaren barruan.

9

martizena

**MURRUKIXO M. E. BATZAR OROKORRA**

Murrukixok urteko batzar orokorra egingo du otsailaren 9ean arratsaldeko 7,30etan Murrukixoko lokalean, Durana kalean.

10

eguztiena

**EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA**

Gasteizko Principal Antzokian izango da emanaldia, arratsaldeko 8etan. Besaulkiaren prezioa 2.250 pta.koa da eta anfiteatroarena 1.350 pta.koa.

**IKASTARROAK****GIMNASIOKO OINARRIZKO IKASTAROA**

Helburuak gimnasioko makina bakoitzaren erabilpena azaldu, saio eredu bat eman eta gimnasioko lanaren oinarrizko planifikazioa egitea dira. Klaseak bi egunetan emango dira otsailak 8 eta 10ean arratsaldeko 6etatik 7, 30etara. 5-10 pertsonen osatutako talde txikiak egingo dira eta prezioa 700 pta. da abonatuentzat eta 1.000 pta. gainontzekoentzat. Izena emateko kiroletxera jo otsailaren 5a baino lehen 943 79 64 61.

**GAUR EGUNGO DANTZA ETA DANTZA JAZZ IKASTAROA**

Ana Mendiolaren eskutik (Patterson metodoa) hastapen eta sakontze mailak emango dira otsailaren 6tik maiatzaren 29 arte. Matrikula 5.000 pta.koa da (3.000 pta. ikasle eta langabetuentzat) eta Arrasate Musikalen izango dira klaseak zapatuetan arratsaldeko 4etatik 5,30etara eta 5,30etatik 7etara. Informazio gehiago Arrasateko gazte bulegoan 943 77 00 65.

**BEHARREZKO TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murrukixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

**Larrialdiak**

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

**Garraioak**

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

**ERREKABARREN  
MERKATAL ZENTRUA**

• JUANTXO URDAITEGIA	943 79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	943 79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	943 79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	943 79 31 59
• LEINTZ-ROSI	943 79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	943 79 96 43





Burgosen jaio bazen ere, sei urte zituela etorri zen Eskoriatzara Josefina Miguel Haizea tabernakoa. Orain hamabost urte ipini zuten taberna, eta gezotik makina bat dantza bota dute herritarrek bertan. Josefina modan dagoen musika jartzen saiatzen da, baina txikiteoan musika euskalduna da nagusitzen dena.

- Noiztik dago Haizea taberna? Orain hamabost urte ipini genuen.
- Zergatik taberna Aretxabale-tan?

Eskoriatzan bizi arren, betidanik erlazio haundia izan dut Aretxabale-tako jendeaz. Bestalde, tabernako lana asko gustatzen zait.

## “Pazientzia haundia behar da barra barruan”

• Zer nolako musika jartzen saiatzen zara?

Orduaren arabera dago hori, txikiteoan musika euskalduna izaten da gehienbat, gauetan, berriz, denetarik, modan dagoena.

• Noiz pasatzen da ondoen barra barruan?

Gauean.

• Zer nolako bezeroak dira Aretxabale-takoak?

Jatorrak. Zortea izan dut, eta jendeaz ez dut arazorik izan.

• Txikiteo asko dago herrian?

Ba, bai nahiko.

• Zer edaten da gehien?

Zerbeza.

• Tabernako lana ala lantegikoa gurago?

Jendeaz erlazionatzen zarenez, tabernakoa.

• Zenbat seme-alaba dituzu?

Hiru.

• Zaila da ama izatea?

Bai, oso zaila. Bizitza asko konplikatzen da umeekin, baina era berean zoragarriak dira. Oso ama eskertua naiz.

• Zer behar da ama ona izateko?

Pazientzia haundia, norberaren instintua erabiltzea.

• Sukaldea ala taberna?

Sukaldari lana ez dut oso gogoko, nahiago dut tabernakoa.

• Etxe batean zenbat telebista behar dira?

Batekin nahiko.

• Zer da esan bai baina egin ez duzun hori?

Euskara ikastea adibidez. Askotan hasi baina utzi egin dut gero.

• Telebistako programa gustokoa?

Ez dut telebista asko ikusten, denborarik ere ez dut eta.

• Erretzailea bai ala ez?

Orain zortzi urte utzi nuen.

• Askok kostata?

Bai, asko, baina ez da ezinezkoa.

• Zure bizitzako momenturik onena?

Semeak izan ditudanean.

• Aholku bat.

Ez naiz aholkurik ematen ausartzen.

• Sinistuna zara?

Bai, barrenean bai.

• Zein da zure hurrengo erronka nagusia?

Bizitza lasaiagoa eramatea.

## KOMIKIA

### BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta





**“KURTZEBARRI  
denontzako gustoko aukera”**

**Haur Hezkuntza: 2tik 6ra**  
**Lehen Hezkuntza: 6tik 12ra**  
**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 12tik 16ra**

Edozein argibide eskatzeko 943 79 00 49 -943 79 57 40

**Ez galdu  
eskola  
hurbil-  
hurbiletik  
ezagutzeko  
duzun  
aukera:  
**ZATOZI!****

**MATRIKULA  
EPEA IREKITA:  
otsailaren  
1etik 12ra**




**KURTZEBARRI  
ESKOLA**





# Mondeo

Esku-eskura  
daukazu



CLX 1.8 16V 115cv/1.8 TD 90cv 2.390.000 pta.

CLX 1.6 16 V 95 cv 2.190.000 pta

Zetec 2.0 16V 130cv 2.845.000 pta

Duratec 2.5 24V 170cv 3.550.000 pta

DEBA GARAIKO KONTZESIONARIO OFIZIALA

**I MUGARRI**